



Agur t'erdi Aramaioko bizilagun hori,

Eskutitz honen bidez jakinarazi nahi dizugu datorren **azaroaren 22an**, asteazkena, *ARAMAION ENERGIA ITURRIEN PROIEKTUEZ HERRITARREKIN HAUSNARTZEN: EGINDAKOAK ETA EGITEKOAK* batzarra ospatuko dela.

- **Ordua**: arratsaldeko 18:30etan
- **Lekua**: Aramaioko udaletxean

Hitzordu horren helburuak honakoak dira:

- Udalak parke eolikoaren proiektuaren aurrean urratutako urratsen berri eman;
- Udalak hartutako erabakiak partekatu eta egingo diren ekintzak aurkeztu.

Bileran parte hartzeko gonbita onartuko duzunaren esperoan.

Jaso ezazu agur bero bat.

Aramaion, 2023ko azaroan

**Stua. Alkatea,
Iban Herrarte Arana**